

EUSKO JAURLARITZA. Gonzalo Saenz de Samaniegok karguaren zina egin du

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Jakien kalitatea eta nekazaritza garapena ildo nagusi

Gonzalo Saenz de Samaniegok Eusko Jaurlaritza-ko Nekazaritza eta Arrantza sailburu karguaren zina egin zuen atzo Ajuria Enean. Iñaki Gerenabarrera aurreko sailburuaren politikari jarraipena emango diola iragarri du Saenz de Samaniegok. Politika horren ardatz nagusien artean bi azpimarratu ditu: elikagaien kalitatea eta segurtasuna,

alde batetik, eta nekazaritza eremuetako garapena eta bizi-kalitatearen hobekuntza, bestetik. Sailburua bere ardurarekin zerikusia duten arloetako «solaskide guztiekin hitz egiteko prest» agertu da. Izendapena dela eta, Batasunak salatu egin zuen «sailburuen erdiek baino gehiagok» ez dakitela euskaraz.

LAN GATAZKA. Egutegia onartzeak «egonkortasuna» ekarriko duela dio LABek**Sindikatuak zehaztasun gehiago nahi dute, eta Volkswageneko zuzendaritzarekin bilduko dira**

I. Arrizurieta | IRUÑEA

Volkswagenek sindikatuari proposaturiko 2002ko lan egutegiari buruzko zehaztasun gehiago eskatu ditu UGTk. LABek onar daitekeela uste du, langile taldeari «egonkortasuna» emanen diolako. Berriz ere zuzendaritzarekin biltzekotan gelditu dira.

Volkswageneko sindikatuak —UGT, CCOO, LAB, ELA, CGT eta CC— zuzendaritzak proposaturiko aurtengo lan egutegia aztertu zuten atzo. Esteban Garcia UGTko ordezkari eta batzordeko presidentearen ustez, proposamenak «argita-

sun eta zehaztasun gehiago» behar ditu. Horretarako, zuzendaritzarekin beste bilera bat egiteko eskatu du, baina oraindik ez du erantzunik jaso.

Izan ere, zuzendaritzak ez du txintik esan aurtengo produkzioaz (273.000 auto egitea aurreikusitako dute). Hala ere, Volkswagenek eskainitako egutegiak 12 produkzio egun gutxiago ditu. Kontuan izanik Polo berria aurretik egiten zen autoa baino zailagoa dela eta langile kopurua bera dela, ezinezkoa da aipaturiko produkzioa betetzea. Hori «oso kezagarria» da, sindikatu batzuen arabera.

LABek proposamenak langi-

leen eskaera orokorrak betetzen dituela esan du, eta egutegia «beharrezkoa» dela. Sindikatuaren iritziz, egutegiak langileei urte osorako egonkortasuna ekarriko lioke, eta 273.000 autoko produkzioa bete egingen litzateke, enpresaren esku dagoelako hori lortzeko kontratu berriak egiteko ardura.

Kontratazio berrientzako «atea zabalik» gelditzen dela uste du, hitzarmenaren hirugarren xedapen gehigarria indarrean uzten bada. Xedapenak dio apirilean, orduko produkzioa eta plantila aintzat hartuz, bi aldeak behar duten langile finkoen kontratazioa hitzartuko dutela.

LABURAREN**Administrazioko sindikatuak eta Iruñeko gobernua berriro bilduko dira lan hitzarmena negoziatzeko**

Administrazioko sindikatuak eta Nafarroako Gobernua berriro bilduko dira heldu den asteazkenean, hilak 30, lan hitzarmenaren negoziazioan jarraitzeko. Atzo goizean bileran egon ziren, baina ez zuten akordio nabarmenik erdietsi. Sindikatuak, kategoriaz apalenen lan baldintzak hobetzeko ez ezik, galdutako eros-ahalmena berreskuratzea eta euskara jasotzea eskatu dute. Izan ere, Gobernuak 180,72 milioi euroko irabazia izan zuen iragan urtean.

Greban diren Selak eta Savera enpresetako langileek manifestazioa egingo dute bihar

Selak eta Savera Services enpresetako langileek greba mugagabea jarraitzen dute lan hitzarmenaren alde, ELAk jakinarazi duenez. Bi enpresetako langileek manifestazioa egingo dute bihar Hermanin (Gipuzkoa). Selakeko 120 langileak hilaren 4tik daude greban, eta Savera Serviceseko 60ak hilaren 16tik.

Bi langile zauritu dira Oñatin lan istripuz, konpontzen ari ziren igogailua erorita

Bi langile zauritu ziren atzo Oñatin (Gipuzkoa), etxe bateko igogailuan lanean ari zirela izandako istripuaren ondorioz. J.M.D.D. 34 urteko langilea eta J.M.M. 36koa igogailukon sabaian zeuden, bigarren solairuan, eta igogailua beheara eroritzen. Zulotik atera eta Arrasateko ospitalera eraman zituzten biak.

Etxandi enpresako 98 langileek gaurtik aurrera jasoko dituzte kanporatze gutunak

Etxandi espartin fabrikako enpresa batzordean bilera izan zuen atzo Maulen Courreges administrari judizialaren ordezkariak, eta, iragarri zuenez, urtarrilaren 9an Paueko Merkataritza Auzitegiak likidazioan jarri zuen lantegiko 98 beharginen gaurtik aurrera jasoko dituzte kanporatze gutunak. Merkataritza Auzitegiak, haatik, etzi hartuko du erabakia enpresaren berriz hartze proposamen batez. Hori Jean-Bernard Carrieu Etxandi enpresako zuzendari komertzialak egingo du.

Aurtengo lehenengo langilearen heriotza salatzen protesta egingo dute sindikatuak

Iragan ostiralean Jundizen (Araba) gertatutako lan istripuan 26 urteko langile bat hil zela eta, aurtengo lehen heriotza izan dela azpimarratu dute ELA, LAB, ESK eta EILASEk. Segurtasun arauak ez direla betetzen eta betearazten salatzen, elkarretaratzea egingo dute gaur arratsaldean, Gasteizko Posta plazan.

Greba Galdakao eta Txagorritxu ospitaleetan garbiketa zerbitzuen pribatizazioaren aurka

Galdakao (Bizkaia) eta Txagorritxu (Araba) ospitaleetako enplegatuek ordubeteko greba egin zuten atzo, goizeko 11:30etik 12:30era, bi erietxe horietako garbiketa zerbitzuen pribatizazio asmoaren aurka, sindikatuak jakinarazi dutenez. Berriro lanuzteak egingo dituzte hilaren 25ean eta 29an.

BURTSA. Santander bankuak izandako emaitza onak esperantza piztu dute**Urteko partida**

J.B. Andueza |

Indizeetan adina, gaur San Mamesen jokatu den «urteko partidari» zuten burua atzo inbertsiogileek. Argentina «berdegune» ortodoxoago batera hurbildu ahala eta Santander bankuaren emaitza onak (+%2,79) lagun, lasaitasuna nagusitu zen.

Indizeek hobera egin zuten goizeko galeretatik zenbaki beltzetara arte. Halere, burtsaren zehaztasuna Heynckesena adinakoa da. Dow Jonesek zenbait enpresaren emaitza onak ospatu arren, Kmart enpresaren porrota ere nabarmentzekoa da. Repsol-YPF (-%1,49) Argentinan zenbat gol sartuko dizkionten ere ikusteko dago.

DATUA

SCHk aurrekoan baino %10,1 gehiago irabazi zuen iaz, 2.486 milioi euro. Hornidura handiak lagun, BBVAren (+%4,33) emaitzak ere onak izango diren ustea zabaldu zuten, eta Telefonikaren (+%1,37) laguntzarekin, indizeari tangoaren zorabioa arindu zioten.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%1,45** | Azken indizea **1.441,41** | Aurreko indizea **1.391,25**

**Beste indizeak**

New York (Dow Jones)*	9.760,43 (-%0,12)
Tokio (Nikkei)	10.050,98 (-%2,35)
Madril (IBEX-35)	8.033,1 (+%1,65)
Paris (CAC-40)	4.446,72 (+%0,52)
Londres (FTSE-100)	5.149,2 (+%0,23)
Frankfurt (DAX)	5.069,74 (+%0,21)
Milan (Mibtel)	22.509 (+%0,49)

* Egutegia arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	0,8830
Libra Esterlina	0,6184
100 Yen (Japonia)	1,1853